

IKUSKARITZA ZERBITZUAREN JARDUTE PLANA 2024/2025

UPV/EHUko Ikuskaritza Zerbitzuaren Arautegiko 4. artikuluan zehaztutakoari jarraituz, zerbitzuak Jarduteko Planaren arabera eramango ditu aurrera ohiko eginkizunak. Plan hori ontzat eman beharko du errektoreak ikasturte bakoitzaren hasieran, Unibertsitateko Irakasleen Batzordearen iritzia entzunda, eta Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaio.

Hauxe da errektoreari proposatzen diogun Jardute Plana 2024/2025 ikasturterako:

Bisita programatuak ikastegietara

Ohi bezala, lauhileko bakoitzean bisita egingo dugu UPV/EHUko ikastegi/atal bakoitzera, eskola egunean zehar.

Bisitetan egiaztatutako dugu irakasleak beren irakats zereginak betetzen ari diren, GAURen agertzen diren bezala (eskolak, tutoretzak eta bestelakoak).

Greba egunak

Ikastegiei gutxienezko zerbitzuak betetzeko eskatuko diegu.

Greba egunean azterketarik baldin badago programaturik, dekanotzak, sailarekin koordinatuta, bermatu beharko du gutxienez irakasle bat egongo dela ikasgela bakoitzean.

Dokumentazioa bidaliko dugu ikastegietara irakasleek adieraz dezaten greba egingo duten ala ez.

Grebaren egunean mezu elektronikoa bidaliko dugu ikastegietara jakiteko zelako jarraipena izan duen grebak. Greba egin duten irakasleen zerrendak egingo ditugu.

Tutoretza orduak grabatzeko abisua eta tutoretzak ez betetzearen ondoriozko zehapenak

Lauhilekoko lehen astean mezu elektroniko bat bidaliko diegu tutoretzak grabatu ez dituzten irakasleei, osorik grabatu ez dituztenei edo tutoretzak dagokienaz bestelako toki batean jarri dituztenei, falta zaiena jar dezaten edo oker dagoena zuzendu. Gainera, orduak jarri barik edo osorik jarri barik jarraitzen duten irakasle guztiei zehapena ezarriko zaie, faltaren larritasunaren eta errepikakortasunaren arabera.

Esku hartzea Irakasleen eta Ikertzaileen Plantillako zuzendariaren eskariz

Zuzendariak eskatuz gero, ikastegietara joango gara egiaztatzeko GAUR aplikazioan grabatutakoa bat datorren ala ez ikastegian egiten denarekin.

Esku hartzea kexa edo salaketa dagoenean edo Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearen edo Irakasleen zuzendariaren eskariz

Ikasleen kexak

Ikasleen kexen protokoloari jarraituz, aztertuko dira kexok eta aurkitutako irregulartasunen araberako irteera eta erantzuna emango zaie.

Egiaztatzen bada irakasleak ez dituela tutoretzak edo eskolak eman edo ez duela egin ikasleen ebaluazioa, edo zeregin horiek ez dituela behar bezala bete, zehapena ezarri ahal izango zaio, eta, edozelan ere, irakaslanaren ardura daukan sailak kontuan hartu ahal izango ditu hurrengo ikasturte bietan irakasle horri esleitu beharreko irakaslan moldatzeko, ikasleen onuraren helburuarekin.

Irakasle-ikertzaileei buruzko txostenak

Gehigarritzko ordainsari osagarrien esleipenari begira, txostenak egingo ditugu irakasle-ikertzaileen tutoretzen grabazioaz eta orduak ez grabatzeagatik egindako ohartarazpenenez.

Ikasturtean egindakoari buruzko txostena

Lauhileko bakoitza amaitutakoan bisita programatuen txostena egingo dugu. Ikasturtea amaitzean zerbitzuaren memoria egingo dugu, zerbitzuak egindako lan guztiak bertan jasota. Dokumentu hori Kontuen Euskal Auzitegiari aurkeztu ahal izango zaio, beharrezkoa balitz.

Gatazken jarraipena

Ahal dugun neurrian, eta hala eskatzen badigute, saiatuko gara aholku ematen edo esku hartzen irakaskuntzaren martxa normalari traba egiten dioten egoera guztietan.

Behin eta berriro gertatzen bada irakasleek tutoretza orduak ez grabatzea, grabatutakoak ez betetzea, eskolara huts egitea edo berandu azaltzea edo aktak epez kanpo sinatzea, ofizioz egingo diogu jarraipena gai horri.

Ikertzaileen lan orduen kontrola

Kanpoko finantziazioaz kontratatutako ikertzaileen lan orduen erregistroa gainbegiratu dugu hilean behin, ikertzaile horien zerrenda aztertuz eta sinatutako orriak dagokion gordailura igo diren egiaztatuz.

Erregistroaren txantiloia egingo dugu hileroko.

Lanaldia erregistratu behar duten ikertzaileen zerrendak eskuratuko ditugu.

Jarraipena egingo diegu grabazioei.

Ikastegiei (ikertzaile nagusiei) informazio gehigarririk eskatuz gero, eman egingo diegu.